



euskara | español

Hemen jarraitu ahal izango diguzu:



nº 14. zkia

Urtarrila

2012, hogeita hamar urte



[Informazio gehiago](#)

1982ko urtarrileko lehenbiziko egunetan Euskadiko Orkestra Sinfonikoa hauta-frogatan murgildurik zegoen bere lehenbiziko musikari-taldea osotuko zuten musikarien bila. Urte hartako apirilaren 20an ofizialki sortu zenetik garatuz joan da egun 7000 abonaturekin eta urtero eskaintzen dituen ehundik gora kontzertuetan 150.000 entzule biltzen dituen (Abonu-Denboraldia, Miramongo Matinéeak, KlasikAT, Musika Familian, Eskola-haurrentzat Kontzertuak etab.) eta estatu mailan erreferentziazkoa den orkestra bilakatu arte. Aipagarria da halaber urteotan osatu duen diskografia zabalak. Gaur, hogeita hamar urte beranduago, Euskadiko Orkestrak **bere sortzaile eta estreinako presidente Imanol Olaizolari biziki merezitako omenaldia** eskainiz abiatuko du 2012 urtea; urtarrilaren 13 ostiralean izango da, Donostiako Kursaal Auditorioan, 2012ko lehenbiziko Abonu-kontzertuan.

Martin Grübinger edo perkusioa



Martin Grübinger

[Informazio gehiago](#)

Imanol Olaizolari omenaldia egin eta TESELA proiektuaren baitan *Zortziko* obra estreinatzeaz gain, seigarren Abonu-programak badu oso interesgarri egiten duen beste argudio bat: bertuosismoa perkusio bilakaturik gozatzeko aukera, mundu mailan gailena den **Martin Grübinger** austriarraren eskutik. Musikari gazte honek egunaren 24 orduetan bizi du perkusioa eta ez ditu bakarrik perkusio-instrumentu guztiak jotzen, ukitzen duen oro perkusio bilakatzeko baitu. Energia eta grina kutsakorrak definitzen dute musikari honen interpretazioa. Errezital moduan, orkestra sinfoniko batekin edo beste edozein formatutan, bere emanaldi bakoitzak eragindako energia galera prestakuntza fisiko gogor baten bidez orekatzen du. **Avner Dorman** israeldar konpositore gazteak 2007an sortu eta Grübingerrek berak estreinatutako *Frozen in Time* perkusio eta orkestrarako kontzertua interpretatuko du.

Salgai KlasikAT berri baterako sarrerak, oraingoan Kepa Junkerarekin



[Informazio gehiago](#)

Salgai daude jada **KlasikAT** zikloaren hirugarren kontzertu-sortarako sarrerak. **2012ko martxoan** itzuliko da musika klasikoaz urrun geratzen diren erreperitorioak landuz: **Euskadiko Orkestrak eta Kepa Junkerak** bilbotar trikitilariaren erritmo ezagunenetan zehar ibilbide sinfonikoa burutuko dute, Enrique Ugartek zuzenduta. Bost kontzertu izango dira guztira: martxoaren 21ean Iruñeko Baluarte Auditorioan, 22an Donostiako Victoria Eugenia Antzokian, 23 eta 24an Bilboko Arriaga Antzokian eta 28an Gasteizko Principal Antzokian. Sarrerak **15 eurotako prezio bakarra** dute kontzertu guztietarako.

XX. mendeko musika larunbat honetan Miramongo Matinéeetan



[Informazio gehiago](#)

Urtarrilaren 14 larunbatean, 2012 urteko lehenbiziko **Miramongo Matinéea** izango da Orkestraren egoitzan. EOSeko musikariek osatutako ganbera talde batek **Albert Roussel-en Fagot eta kontrabaxurako dua eta Gavrii Popov-en Ganbera Sinfonia** interpretatuko ditu. Kontzertu honek XX. mendeko lehenengo zatian, *gerra arteko* izenez ezagunak diren urteetan europar musika-aretoak betetzen zituzten musika anitzen erakusgarri izan nahi du. Matinée honetarako sarrerak www.kutxa.net eta Telekutxa bidez eros daitezke eta kontzertuaren egunean halaber Orkestraren egoitzan bertan.

Data	Programa	Auditorioa	Hiria
13/01/2012	6. Programa	Auditorio Kursaal Auditorioa, 20.00h	Donostia-San Sebastián
14/01/2012	6. Programa	Palacio Euskalduna Jauregia, 20.00h	Bilbao
14/01/2012	7. Matinéa	Sede de la Orquesta, 11.00h	Donostia-San Sebastián
16/01/2012	6. Programa	Auditorio Kursaal Auditorioa, 20.00h	Donostia-San Sebastián
17/01/2012	6. Programa	Auditorio Baluarte Auditorioa, 20.00h	Pamplona-Iruñea
18/01/2012	6. Programa	Teatro Principal Antzokia, 20.00h	Vitoria-Gasteiz
26/01/2012	7. Programa	Auditorio Kursaal Auditorioa, 20.00h	Donostia-San Sebastián
27/01/2012	7. Programa	Teatro Principal Antzokia, 20.00h	Vitoria-Gasteiz
28/01/2012	8. Matinéa	Sede de la Orquesta, 11.00h	Donostia-San Sebastián
30/01/2012	7. Programa	Auditorio Kursaal Auditorioa, 20.00h	Donostia-San Sebastián
31/01/2012	7. Programa	Auditorio Baluarte Auditorioa, 20.00h	Pamplona-Iruñea
01/02/2012	7. Programa	Palacio Euskalduna Jauregia, 20.00h	Bilbao
04/02/2012	Soldadu baten istorioa	Sala de cámara del Kursaal, 18.00h	Donostia-San Sebastián
05/02/2012	Soldadu baten istorioa	Teatro Principal Antzokia, 18.00h	Vitoria-Gasteiz

Egun EUSKOR-era harpidetuta zaude zure posta elektronikoaren helbidearen bidez. Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako 15/1999 Lege Organikoa (LOPD) eta Informazio Gizartearen Zerbitzuen 34/2002 Legea (LSSI) betez, jakinarazten dizugu zure datuak Orquesta de Euskadi, S.A.-ren fitxategietan daudela eta bertan tratatzen direla, Euskadiko Orkestraren inguruko berriak zuri helarazteko. Idatziz eta egokien deritzozun bidea erabiliz, datu pertsonalak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta datuen aurka egiteko eskubideak balia ditzazkezu; halaber, Euskadiko Orkestraren inguruko berriak igortzeko baimena baliogabetu dezakezu, harpidetza utziz; horretarako jarrai [lotura honi](#).

español | euskara

Síguenos en:



nº 14. zkia

Enero

2012, treinta años



Más información

En los primeros días de enero de 1982 la Orquesta Sinfónica de Euskadi realizaba las pruebas de selección en busca de los músicos que compondrían su primera plantilla. Tras su constitución oficial el 20 de abril de aquel año, la OSE fue creciendo hasta convertirse en una agrupación de referencia a nivel estatal, con 7000 abonados y más de 150.000 espectadores distribuidos en sus más de 100 conciertos anuales (Temporada de Abono, Matinéas de Miramón, KlasikAT, Conciertos en Familia y para Escolares, etc.), además de una importante discografía. Hoy, treinta años después la Orquesta de Euskadi arranca este año con un más que merecido homenaje a su fundador y primer presidente, Imanol Olaizola; será el viernes 13 de enero en el Kursaal de San Sebastián, en el primer concierto de Abono de 2012.

Martin Grübinger o la percusión



Martin Grübinger

Más información

Además del homenaje a Imanol Olaizola y el estreno absoluto de Zortziko, obra que forma parte del proyecto TESELA, el sexto programa de Abono encierra otro argumento de interés: poder disfrutar del virtuosismo hecho percusión del austriaco Martin Grübinger, número uno en el panorama internacional. Este joven músico vive la percusión las 24 horas del día y no solo interpreta la enorme nómina de instrumentos de percusión sino que convierte en percusión todo lo que toca. Energía y pasión contagiosa definen la interpretación de un músico que compensa, a través de una férrea preparación física, el desgaste que acarrea cada una de sus actuaciones, ya sea en recital, junto a una orquesta sinfónica o en cualquier otro formato. Interpretará el concierto para percusión y orquesta Frozen in Time firmado por el joven compositor israelí Avner Dorman en 2007 y que él mismo estrenó.

A la venta las entradas para un nuevo KlasikAT, este año con Kepa Junkera



Más información

Ya están a la venta a través de los canales de venta habituales las entradas para la tercera edición de KlasikAT, que volverá en marzo de 2012 con otra entrega de música al margen de lo clásico: la Orquesta de Euskadi y Kepa Junkera trazarán un recorrido sinfónico a través de algunos de los ritmos más conocidos del trikitilari bilbaíno, bajo la dirección de Enrique Ugarte. Serán un total de 5 conciertos: 21 de marzo en el Auditorio Baluarte de Pamplona, el 22 en el Teatro Victoria Eugenia de Donostia-San Sebastián, 23 y 24 en el Teatro Arriaga de Bilbao y 28 en el Teatro Principal de Vitoria-Gasteiz. Las entradas tienen un precio único de 15 euros para todos los conciertos.

Música del siglo XX este sábado en las Matinéas de Miramón



Más información

Este sábado 14 de enero tendrá lugar en la sede de la Orquesta la primera Matinée de Miramón de 2012. Un grupo de cámara formado por músicos de la OSE interpretará el Dúo para fagot y contrabajo de Albert Roussel y la Sinfonía de Cámara de Gavrii Popov en un concierto que pretende ser una fotografía de las músicas que en la primera parte del siglo XX, años conocidos como de entreguerras, inundaban las salas de música europeas. Las entradas se pueden adquirir en www.kutxa.net, Telekuxta y en la sede de la Orquesta el mismo día del concierto.

Table with 4 columns: Fecha, Programa, Auditorio, Ciudad. Lists concert dates from 13/01/2012 to 01/02/2012 across various venues like Kursaal Auditorioa, Palacio Euskalduna, and Teatro Arriaga.

04/02/2012
05/02/2012

Historia de un soldado
Historia de un soldado

Sala de cámara del Kursaal, 18.00h
Teatro Principal Antzokia, 18.00h

Donostia-San Sebastián
Vitoria-Gasteiz

Actualmente está suscrito a EUSKOR con su dirección de correo electrónico. En cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal (LOPD) y en la Ley 34/2002 de Servicios de la Sociedad de la Información (LSSI), le recordamos que sus datos personales están incorporados y son tratados en los ficheros de Orquesta de Euskadi, S.A. con el fin de enviarle noticias relativas a la Orquesta de Euskadi. Usted puede ejercer, por escrito y por el medio que estime más oportuno, sus derechos de acceso, rectificación, y oposición al tratamiento de sus datos personales; asimismo puede revocar su consentimiento para el envío de noticias relativas a la Orquesta de Euskadi, cursando su baja siguiendo el [enlace](#).